

MIARRITZE. Gaur amaituko dute lapurtarrek Heineken Kopako ibilbidea, Bathen, ezuste izugarriak gertatu ezean

Kopa ongi amaitzeko premia

Joanekoan galdu zuen Miarritzek sailkatzeko aukera; hain justu, ingelesen aurka galduta

Koldo Alduntzin | **MIARRITZE**

Gaur amaituko du Heineken Kopako ibilbidea Miarritzek, inork espero ez dituen ezuste galantak gertatzen ez badira bederen. Izan ere, sei multzoetako bigarren onenek ere final-laurdenetarako txartela eskuratuko dute. Horietako bat Castresek (Frantzia) berea du, eta bestea Ulsterrek (Irlanda) eta Cardiffek (Gales) dute eskura. Miarritzek Bathen kontra galdu zuen, hain justu, Kopan sailkatzeko aukera nagusia, 6-14 galdu baitzuen Aguileran, joanekoan.

Antolakuntza eta defentsa hobe erabili zuten ingelesek joan zen irailaren 29ko neurketan. Gainera, Bathen hobeto asmatu zuen jokaldiak amaitzen, eta horri esker, entsegu bat egin zuen Voycek, partidaren hondarrear. Harrezkero, ingelesek beste lau partidak irabazi zituzten, eta final-laurdenetarako txartela patrikan dute. Horregatik, gaur lasai aritzeko moduan

GUILLAUME BOUSSES

Miarritzeko jokalaria

«Ordainekoa emateko gogoz gara, eta, gainera, Arroxelaren kontrako partida garrantzitsua prestatu behar dugu»

dira. Miarriztarrek behar baino baloi gehiago galdu zuten.

Partida hartan Isaacek eta Boussek egin zuten erdiko biko hiru laurdenetako lerroan. Gaur, ordea, Rodriguezek eta Lagisquetek atsedena eman diete jokari hauei: Avril, Puleto, Betsen, Legg, Roff eta Bousse. Bousse da Miarritzek 2001-2002 sasoirako fitxatu zuen jokarietako bat. Tolosan aritu zuen, baina iazko sasoi hutsala izan zen, eta hona etortzera deliberatu zen.

«Tolosako eskola aipagarria da, baina nik nire maila erakutsi



KOLDO ALDUNTZIN
Guillaume Bousse, joaneko partidaren zelaira irteten, Aguileran.

Bath-Miarritze

Xapelgoa: Heineken Kopa (6. jardunaldia).
Sailkapena: Miarritze 2. (5 p.), Bath lehena (10 p.).
Miarritze: Menieu, Gonzalez (kap.), Fitzgerald, Versailles, Roumat, M. Lievreumont, Th. Lievreumont, Chouchan, Morlaes, Peyrelongue, Bidabe, Isaac, Cassin, Bernat-Salles, Brusque.
Epailea: Disantis (Italia).
Lekua: Bath (Ingalaterra).
Orena: 18:15.

nahi nuen, eta ez naiz damutzen hona heldu izanaz. Hemen ere gauza asko ikasi dut; batez ere, paseak eta konbinazioak ongi egiten», dio tolosarrak. 20 urte ditu, 1,85 metro eta 89 kilo.

Liga hastapenean ohikoa izan zen. Baina gero: «Postuan aritzeko hiru gara, eta Lagisquetek argi utzi zuen hirurak ariko ginela; oraingoz ongi ari gara», nabarmendu du. Bathen kontrako lehiak, «ingelesak gaizki ari ziren beren Ligan, eta Kopa dutenez helburu, ezustean harrapatu gintuzten. Ordainekoa emateko gogoz gara, eta, gainera, Arroxelaren kontrako partida prestatu behar dugu. Beraz, lehia interesgarria izango da». Irazoki, Dabadie, Matiu, Milheres, Bonnet, Mazas eta Legg dira ordezkoak.

Hirugarren multzoko beste partida atzo zen jokatzekoa: Edinburgo-Swansea.

LOGROÑOko ADARRAGA PILOTALEKUTIK

JAIALDIA 17:30etan
GAUR 18:15

KOKA - BARRIOLA
VS
NAGORE - ARMENDARIZ
eta gainera

BINAKAKO TXAPELKETA
ESAIN - BELOKI
VS
CAPELLAN - ELKORO

Babeslea

BBVA

5
TELECINCO

Josexo Lizartza
Estilistik Onena
FRONTON